

GURE BIZITZAK BIRPENTSATZEA



“Koronabirusaren egungo pandemia aukera paregabea da Denon Etxean bizitzeko dugun modua berregiteko; naturarekin eta besteekin produzitu, kontsumitu eta erlazionatzeko modua, alegia. Iritsi da alor kapitalista basatiaren ustezko dohainak zalantzan jartzeko garaia: mugarik gabeko metaketa, norgehiagoka, indibidualismoa, kontsumismoa, xahubidea, milioika pertsonaren miseriaren aurrean axolagabekeria, Estatu Sozialaren murrizketa, eta Wall Streeten leloaren gorespena, “Abarizia ona da”. Hau guztia kolokan jarri da orain. Ezin du horrela jarraitu.

Frantziako presidentek berak, neoliberala eta finantzen mundutik datorrenak, Emmanuel Macronek argi eta garbi esan zuen: “Pandemia horrek erakusten du doako osasunak, baldintzarik gabeko diru-sarrerak, historia pertsonal edo lanbidekoak, eta gure Gizarte Ongizate Estatua, ez dira kostuak edo kargak, ondasun preziatuak baizik. Ezinbesteko onurak, patuak atea jotzen duenean. Pandemia horrek erakusten du ondasun eta zerbitzu batzuek merkatuko legeetatik kanpo geratu behar dutela”.

Hemen garbi ikusten da merkatu-ekonomia hutsa, dena merkantilizatzen duena, eta haren adierazpen politikoa, neoliberalismoa, gaiztoak direla gizartearentzat eta bizitzaren etorkizunerako. Aita Santuak askotan salatu izan du hori, bizitzaren atentatu gisa: “Hiltzen duen ekonomia”.

Are sendoagoa izan zen Naomi Klein kazetaria, mundu-sistemaren gaitzespen zorrotzetako bat: “Sistema honek kosmosaren, naturaren eta gizakiaren lege unibertsalena hausten du; guztiak guztiekin mendekotasuna; ez dago

izaki bakar bat ere, are gutxiago gizakiak, gainerako guztietatik deskonektatutako irla gisa. Are gehiago. Ez du onartzen naturaren parte garela, eta Lurra ez dela gure nahierara ustiatzeko; gu Lurraren partaide gara. Lurraren eta gizateriaren batasuna ikusten duten kosmologo eta astronauta onenen ikuspegian, sentitu, pentsatu, maitatu, zaindu eta gurtzen duen Lurraren zatia gara. Natura eta Lurra mundu osoan egiten den bezala gehiegi ustiatuz, geure buruari kalte egiten diogu, eta berak ezartzen dizkigun erreakzioen eta zigorretara arriskatzen gara. Ama eskuzabala da, baina matxinatu eta birus suntsitzaile bat bidal diezaguke”.

Zentzu honetan, Francisco Aita Santuak, ‘Laudato sii’ burubidea idaztean, “arrazoi sentibera eta adeitsua piztu behar dugu” azpimarratzen du. “Axolagabetasuna gainditu eta bihotzarekin besteen mina sentitu”. Vatikanon ospatu zen Amazoniari buruzko Sinodoa, Elizak, gu guztioi eta munduari egiten digun beste dei aparta da, jabetzeko, bereizteko, meditatzeko eta horren arabera jarduteko.

Inor ez dago birusetik immune. Aberatsek eta pobreek solidarioak izan behar dugu elkarren artean, geure burua zaindu, besteak zaindu eta erantzukizun kolektiboa onartu. Ez dago salbazio-ataririk. Edo gizaki sentitzen gara, berdinak Denon Etxean, edota hondoratu egingo gara.

Uste dut pandemia honi ezin zaiola aurre egin, beti ezinbestekoak diren baliabide ekonomiko eta osasun erlokoekin bakar-bakarrik. Natura eta Lurrarekin beste harreman bat izatea eskatzen du. Krisia igaro ondoren behar diren aldaketak egiten ez baditugu, hurrengoa azkena izan daiteke, Lurraren etsai amorratu bihurtuko baikara. Eta, agian, berak, ez gaitu hemen nahiko.

Pentsamendu kritikoa garatu behar dugu, lankidetzarako jokaerak, natura zaindu, harmonia landu, eta erantzukizunak hartu. Gure zorionerako, bizitzen ikastea gutxitan izan da garai hauetan bezain garrantzitsua.